

2024ko otsailaren 12ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Kattalin Duhalde, Anne Marie Darguy, Maité Oxarango, Chantal Echevertz, Philippe Mongabure, Samuel BISCAY, Hervé Parachou, Ramuntxo Oteiza, Patrick Barneche, Koxe Barbier, Arño Gastambide

Bilkurara ezin etorria jakinarazia zutenak: Karine Perez, Virginie Sabaloue, Sabine Etcheverry, Frédéric Hernandez

1. 2023ko kudeaketa kontuen eta administrazio kontuen onespena

2023KO KONTU ADMINISTRATIBOA – HERRIKO ETXEA

Inbestimendua

Gastuak	Aurreikusia	1 350 379,00
	Egina	992 847,05
	Egitekoa:	211 800,00
Irabaziak	Aurreikusia	1 350 379,00
	Egina	788 657,26
	Egitekoa:	11 452,00

Funtzionamendua

Gastuak	Aurreikusia	856 159,00
	Egina	528 977,48
	Egitekoa:	0,00
Irabaziak	Aurreikusia	856 159,00
	Egina	887 748,89
	Egitekoa:	0,00

Kontu aldiaren bururatzeko emaitza

Inbestimendua	-204 189,79
Funtzionamendua	358 771,41
Emaitza orokorra	154 581,62

ZORRAREN EGOERA

Maileguen urte sarien taula- 2024ko urtarrila					
Maileguak	Hastapeneko zenbatekoa	Hastapena/Bukaera	Oraino zor den kapitala	2023ko urte sariak	2024ko urte sariak
Trinketaren berritzea	250 000,00	2009/2024	18 158,42	17 933,45	18 158,42
Apezetxearen berritzea	100 000,00	2011/2026	22 086,27	7 131,44	7 245,54
Eraikin anizkoitz baten eraikuntza	320 000,00	2014/2028	102 856,98	22 857,16	22 857,16
Apairi/Denen Etxearen berritzea	130 000,00	2017/2031	72 329,37	8 547,80	8 654,29
Apairi/Denen Etxearen berritzea	120 000,00	2017/2031	64 000,00	8 000,00	8 000,00
Herriko argien berritzea	22 539,00	2023/2038	21 103,74	1 435,42	1 444,75
Orotara	942 539,00		300 534,78	65 905,27	66 360,16

LTEP atxikitze hitzarmena					
Elissalde lursaila 20 urte	365 089,00	2013/2032	119 448,65	13 272,08	13 272,08
Beltzategia etxea 24 urte	244 618,00	2017/2041	158 223,08	13 587,01	9 812,84
Arotcarena lursaila 6 urte	223 306,00	2023/2028	186 088,74	37 217,75	37 217,75
Orotara	833 013,00		463 760,47	64 076,84	60 302,67

OROTARA	1 775 552,00	764 295,25	129 982,11	126 662,83
---------	--------------	------------	------------	------------

2023ko KONTU ADMINISTRATIBOA – HARRIETAKOBORDA lotizamendua

Inbestimendua

Gastuak	Aurreikusia	264 005,00
	Egina	99 631,14 (Ordena)
	Egitekoa:	0,00

Irabaziak	Aurreikusia	264 005,00
	Egina	263 050,00
	Egitekoa:	0,00

Funtzionamendua

Gastuak	Aurreikusia	380 835,00
	Egina	230 977,16
	Egitekoa:	0,00

Irabaziak	Aurreikusia	380 835,00
	Egina	288 367,14 (186 390€ erreal + 101944.14€ ordena)
	Egitekoa:	0,00

Kontu aldiaren bururatzeko emaitza

Inbestimendua	163 418,86
Funtzionamendua	57 389,98
Emaitza orokorra	220 808,84

(99 631.14 erreal + 131 346.01€ ordena)

2023ko KONTU ADMINISTRATIBOA – LANDALUXIA lotizamendua

Inbestimendua

Gastuak	Aurreikusia	294 612,00
	Egina	101 251,36 (ordena)
	Egitekoa:	0,00

Irabaziak	Aurreikusia	294 612,00
	Egina	126 531,01 (erreal)
	Egitekoa:	0,00

Funtzionamendua

Gastuak	Aurreikusia	421 746,00
	Egina	101 251,67 (erreal)
	Egitekoa:	0,00

Irabaziak	Aurreikusia	421 746,00
	Egina	101 251,36 (ordena)
	Egitekoa:	0,00

Kontu aldiaren bururatzeko emaitza

Inbestimendua	25 279,65
Funtzionamendua	-0,31
Emaizta orokorra	25 279,34 (ordena)

(Réel)

Esplikazioen ondotik eta aurreikuspenei konparatu ondoan, 2023ko hiru kontu administratiboak bozkatu dira. Aurrekontu gehigarrietan agertzen diren zenbatekoek eraikuntzarako egokitzeko aktibitatearen parte bat baizik ez dute erakusten, 2024an bukatuko baita.

Kudeaketa ontzat eman da jaun auzapezari.

(errealal)

Kudeaketa txostena ere aho batez onartu da.

2. Herria Zerga Behatoki Partekatuari kidetzea

(ordena)

Jaun auzapezak kontseiluari jakinarazi dio Euskal Hirigune Elkargoak eta kide dituen herriek zerga behatoki partekatua badutela 2018az geroztik.

Euskal Elkargoak ingeniaritza eskaintza zabaldu du kide dituen herrientzat, tokiko zuzeneko zergetarako eta diru-zuzkiduretarako.

Zerga behatoki partekatu horren xedea da herriak laguntzea tokiko zuzeneko zergen sailean zerga oinarriak segitzeko eta fidagarriago egiteko, erabakitzeko laguntza emateko eta legeen eta arauen bilakaerak herriko baliabideetan duen eragina zaintzeko.

Orain arte formalizatua ez zen zerga behatoki partekatua integratuagoa izan dadin, eta lurraldean bateratze eskemaren desmartxa abian ezarri baita, egokia iduritu da zerbitzu komun bat plantan ezartzea.

Beraz, proposatu da lurraldeko herriekin "Zerga behatoki partekatu" zerbitzu komuna plantan ezartzea 2024ko urtarrilaren 1etik goiti, hitzarmen moldean. Zerbitzu horren kostua Euskal Hirigune Elkargoak du bere gain hartuko.

Jaun auzapezari hitzarmena izenpetzeko baimena eman zaio.

3. EKINDAR Interes Kolektiboko Kooperatiba Sozietateari kidetzea

2023ko ekainaren 9ko gure bilkuran, Herriko Kontseiluak auzapezari engaiamendu gutun baten idazteko baimena eman zion herriak Izpindar elkarteak proposatu energia berriztagarrien autokontsumo kolektiboko proiektuan parte hartzeko xedea zuela jakinarazteko.

Horrela, Hazparnealdean plantan ezarriko den autokontsumo kolektiboko zirkuituaren kariatara, eta kontuan harturik energia kodeak galdatzen duela tokiko autokontsumo kolektiboko zirkuitu bateko ekoizleak eta kontsumitzaileak erakunde juridiko berean bildu behar direla, erabaki da Interes Kolektiboko Kooperatiba Sozietatea (IKKS) muntatzea.

IKKS erakundeak jarduera hauek bermatuko ditu:

- elektrizitatea ekoizteko prozesuen garapena eta funtzionamendua energia berriztagarrien erabileraren bidez, bereziki eguzki-energiaren bidez
- autokontsumo kolektiboaren garapena Hazparnealdeko tokiko autokontsumo kolektiboko zirkuituaren mailan eta "Legezko Pertsona Antolatzailearen" bidez
- energia berriztagarrien garapen proiektuen ingeniaritza
- kontsumoa kontrolatzeko eta energia berriztagarriak ekoizteko sentsibilizazioa eta formakuntzak plantan ezartzea.

Ekindar IKKSren estatutuen arabera lurralde elkargo batek edo HELEP batek behar ditu hartu eta esku utzi:
- gutienez 50 parte sozial 5 000 biztanle baino gutiagoko lurralde elkargo batentzat
- gutienez 100 parte sozial 5 000 biztanle baino gehiagoko lurralde elkargo batentzat
- gutienez 500 parte sozial IKKSean sartzean beste edozein HELEP edo lurralde elkargorentzat.

Herriko Kontseiluak onartu du Aiherrako herria Ekindar IKKSaren kide izatea “Elkargo eta erakunde publiko” gisa Ekindar IKKSeko kapitalean 20 €-ko 50 parte sozial hartuz, hots, 1 000 €.

4. Energia berriztagarrien azeleratze eremuen finkatzeko hitzartzeen abiatzea

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2023ko martxoaren 10eko 2023-175. legeko 15. artikulua bidez herriek azeleratze eremuak proposa ditzaketela energia berriztagarrien ekoizpena garatzeko.

Eremu horiei esker energia berriztagarriak ekoizteko ekipamenduak (fotovoltaikoa, anaerobikoa, haize-errotak, geotermia, etab.) har ditzaketen guneak identifika daitezke. Ez dute ekipamenduak ezartzeko baimena bermatzen, hauek neurri aplikagarriak errespetatu behar baitituzte, eta, edozein gisaz, proiektuak kasuz kasu ikertzen dira.

Jakinarazi du legearen arabera herriak librokiki behar dituela finkatu publikoarekiko hitzartze moldeak, eta zehaztu du eremu horiek proposatzen dituen erabakia 2024ko martxoaren 31 gabe hartu behar dela eta prefeturari jakinarazi.

Epe labur hori kontuan harturik, jaun auzapezak proposatu du:

- publikoaren esku uztea energia berriztagarriak ezartzeko hautatu lekuen ulertzeko dokumentuak¹ eta erregistro bat publikoaren esku uztea Herriko Etxearen irekitze egun eta tenoreetan 2024ko otsailaren 26tik martxoaren 01era, baita ere ideiak edo oharrak biltzeko kaier bat.
- Kontsulta bat antolatzea elektronikoki 2024ko otsailaren 26tik martxoaren 1era Herriko Etxearen webgunean: <http://www.ayherre.fr/>
- eta iritzi eta parte hartze guziak zuzenean hartzea Herriko Etxean martxoaren 2an, larunbatean, 9:00etatik 11:00etara.
- hitzartze horren ondotik ekarpenen bilana aurkeztuko da eta eremukatze proposamenen aldaketak ikertzen eta eztabaidatzen ahalko dira Herriko Kontseiluan.

Herriko Kontseiluak moldeak eta egunak onartu ditu.

Gai orotarik

Hirigaray jaunak alokatu herriko lurren esleitzea (Herve Parachouk kontseilua utzi du).

5 laborarik beren burua aurkeztu zuten lur horien alokatzeko (GAEC Mougica, Frédéric Mirande, Pascal Minjou, Hervé Parachou, Julien Darraidou.) Batzordean pasatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du lur horiek Hervé Parachouri alokatzea. Bere laborari jarduera iraunkor egingen du horrela.

Beltzagiteko egoitza alokatu nahi zuten etxe-hautzainak hautatu dira: egin zen deialdiaren bidez, proiektu horretan sartzeko prest zen hiru pertsonako talde baten kandidatura ukan dugu. Nahitaezko irizpideei ihardesten die (ikus CVa).

Herriko Kontseiluak talde horri onspen prozedura abiatzeko baimena eman dio.

Korrikaren iragatea martxoaren 15ean, 01:30ean, Lekuine eta Donoxtiri arteko bidean. Aitzineko urteetan bezala, Aiherrak parte hartuko du eta Herriko Etxearen kilometroa erosiko.

Erabakia hartu behar zen B1419 lursailaren erosteko eta B1418 lursaila lehentasunez erosteko. Prozedurak abiatu dira, kostua estimatzekoa da, baina bi lursail horiek aldi berean eskuratu behar lirateke. Segitu beharko den afera.

Asiako liztorren zepoan harrapatzea: hilabete hondarrean plantan ezarri behar dira

Zikinontzi edukiontzia kokatuak diren lekuak plantan utzi behar dira: gakotu behar dira, edukiontzia itzuli bilketa aitzin, eta zikinontziak herrestan uzten dituzten herritarrei isuna ezarri haien erantzule egiteko.

